

LITERATURA**1. Zein testu mota dira? Narrazioa, deskribapena, elkarrizketa edo olerkia?**

- Oso katu polita zen: ile beltz-beltza eta distiratsua zuen, biboteak antenak bezalakoak ziren eta esmeralda biziak ziruditen begiak.
- -- Zebra izan nahi dut lepo motza izateko!
--Baina zebrak ezin dira zuhaitzetako hostoetara heldu...
-- Hori egia da eta nik gustokoak ditut zuhaitzetako hostoak!.....
- Egun da Santimamiña
benetan egun samiña,
goiko zeruak gorde dezala
luzaro gure arima.
- Katu beltza etxetik atera zen. Bustana alde batetik bestera gizonezkoarengana hurbildu eta bere hanken kontra igurtzi zen miazkatuz.
.....

LEXIKOA**2. Berridatzi esamoldeak.**

- Etxeko bidea **harriz josita** zegoen.
.....
- Bertsolariak **aho bete hortz** utzi zuen plazara bertaratu zen jendea.
.....
- **Hutsaren truke** lan egiten ari da.
.....
- **Gorriak ikusi** zituen gerra garaian.
.....
- **Izerdi patsetan** iritsi nintzen etxera.
.....

3. Idatzi bina hitz atzizki hauek erabiliz.

-ki	-le	-kor	-keria	-aldi

4. Nola adieraz daitezke hitz batean? Erabili atzizkiak eta idatzi.

- Dantzan egiten duena. _____ I _____
- Loreak dauden lekua. _____ E _____
- Gasteizkoa. _____ S _____
- Bizitzaren lehenengo urteak. H _____
- Maiatzeko erraza dena. _____ G _____

GRAMATIKA

5. Erantzun beheko galderei.

- Nor da neska hura? (Miren)
.....
- Zer dauka Edortak poltsikoan? (goxoki bat)
.....
- Zertan ari da Koldo? (ikasi)
.....
- Nongoak dira Jon eta Karmele? (Paris)
.....
- Nora zoaz gaur arratsaldean? (Bilboko jaiak)
.....

6. Lotu galdera bakoitza bere erantzunarekin.

Nork abesten zuen gogoz antzokian bere familiarentzat?

Umeak gogoz abesten zuen antzokian bere familiarentzat.

Norentzat abesten zuen umeak gogoz antzokian?

Umeak abesten zuen gogoz antzokian bere familiarentzat.

Non abesten zuen umeak gogoz bere familiarentzat?

Umeak antzokian abesten zuen gogoz bere familiarentzat.

Nola abesten zuen umeak antzokian bere familiarentzat?

Umeak bere familiarentzat abesten zuen gogoz antzokian.

7. Bete hutsuneak.

- Ume horiek _____ (etxe hori- NON) bizi dira.
- Sagarrak hainbat _____ (zuhaitzak- NONDIK) erori dira.
- _____ (Etxe guztiak –NORA) bidali zituzten gutunak.
- _____ (gazteluak – NON) ez da mamurik egoten.
- Igerilaria _____ (flotagailua –NORAINO) iritsi da.
- Soroslea hainbat _____ (igerilari- NORENGANA) hurbildu da.
- Gozokiak ekarri dituzte auzoko neska - mutil _____ (guztiak- NORENTZAT).
- Parkean jolasean ibiltzen gara _____ (lagun asko - NOREKIN)
- _____ (amona- NOREN) betaurrekoak apurtu dira.
- Ikasgelako _____ (lagunak- NOREKIN) jolasten naiz jolas-orduan.

8. Zuzendu akatsak.

- Denda horiengan saltzen dituzten gozokiak garestiegiak dira.

.....

- Hainbat lekuan agertzen dira horrelako landareak.

.....

- Miren egin zuten bazkaria.

.....

- Kafesne, nahi nuke ama, mesedez.

.....

- Aiton-amonengan ikasi nituen ipuin horiek.

.....

ORTOGRAFIA

9. Berridatzi testua falta diren marra luzeak eta laburrak ipiniz.

Egun hartan, eskolatik irtendakoan, Markeli sekretu bat neukala esan nion.
Nahi duzu sekretu bat esatea? Baina ezin diozu inori ere esan.
Zin egiten dizut, benetan! Erantzun zidan jakin minez.
Etorri nirekin! Zerbait erakutsi behar dizut.
Bizikletak hartu, eta etxe zaharrerantz abiatu ginen.

10. Osatu esaldiak al, ahal edo ala erabiliz.

- Goitik behera bustia zatoz, euritakoa apurtu zaizu, _____?
- Egia _____ da hori?
- Perretxiko hauek jan _____ ditugu, _____ pozoitsuak dira?
- Txapelketa irabaziko _____ dugu!

IDAZKETA

